

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Gurpilak mastekatzen

NEW YORK, 1869. Thomas Adams (1818-1905) zientzialaria gurpilak egiteko material alternatibo baten bila ari zen lanean. Zehazki, Yukatan inguruan ohikoa zen *Achras sapita* zuhaitzaren erretxina erabili zuen jostailuak, euritako botak eta bizikleta gurpilak egiteko. Baina esperimentu horiek guztiek porrot egin zuten.

Baina Adamsek bazekien mexikarrek erretxina horri *tzictli* esaten ziotela eta mastekatu egiten zutela. Hain zuzen, Antonio Lopez de Santa Ana buruzagi mexikarraren idazkaria izan zenean izan omen zuen horren berri. Hala, *tzictliari* azukrea erantsi eta 1871ko otsailean salgai zen Adams' New York Gum delakoa, hau da, lehenengo txiklea merkaturatu zen.

Mende asko ziren maiek eta aztekek txiklea hortzak garbitzeko erabiltzen zutela. Baina Frai Bernardino Sahagun historialariak XVI. mendean jaso zuten, txiklea jende aurrean mastekatzeari ez zegoen ongi ikusia, besteak beste, prostitutek, bezeroak erakartzeko, txiklea mastekatzuz zaratatzen egiteko ohitura omen zutelako.

Adamsen produktuak berehalako arrakasta izan zuen kontsumitzaile estatubatuarren artean eta, ondorioz, lehia ere azkar agertu zen. 1880an William J. Whitek menta zaporea



Txiklea ona da marinelen hortzentzat, gosearentzat eta digestioarentzat, 1918ko iragarki honen arabera.

begetala material sintetikoek ordezkatu zuten eta produktua merkatu egin zen. Eta txiklea Europara iritsi zen.

Baina zuzenagoa litzateke soldadu estatubatuarren eskutik txiklea Europara itzuli zela esatea. Izan ere, duela urte batzuk orain arte aurkitutako txikle arrastorik zaharrena topatu zuten Suedian. Urki erretxina zati bat da, 9.000 urte ditu eta Harri Aroko gizaki baten hortz-haginen markak dauzka.

Arrastoak

Parisen zatiak saldu dituzte

PARIS MON AMOUR izenburupean, iragan abenduan Frantziako hiriburu 350 "zati" saldu zituzten enkantean. Pieza nagusia Eiffel dorreko (argazkian) eskaileraren zati bat izan da, 7,8 metrokoa, 1983an kendu zutena, eta 85.000 euroren truke bereganatu duena erosleak. XIX. mendeko metroko bi banku-

ren truke 20.320 euro ordaindu dituzte eta Napoleon III.aren garai-ko komun baten truke, 3.348.

Objektu izar horiez gain, 90eko hamarkadako taximetro bat, telefono kabina zahar bat, kiosko bat, zaborrontziak, farolak eta abar ere saldu dituzte Cristophe Lucienek antolatutako enkantean.



WWW.WORDPRESS.COM